



Adimen artifiziala erabateko irisgarritasun unibertsalaren bidean: erronkak, aukerak eta aplikazioak



Ots. 18 2021

Kod. Z01-21

Mod.:
Online zuzenean

Edizioa
2021

Jarduera mota
Workshop

Data
Ots. 18 2021

Kokalekua
Online zuzenean

Hizkuntzak
Gaztelera Euskara

Balio akademikoa
10 ordu

Antolakuntza Batzordea

Azalpena

Ikastaroa streaming bidez jarraitu nahi baduzu: <https://youtu.be/4E9lsIR5gwY>

Irigarritasun unibertsala funtsezko eskubidea da edozein pertsonak bere bizitza normaltasun eta autonomia osoz garatu ahal dezan. Hala ere, irigarritasun unibertsala betetzeko. askotan ez da erraza beharrezko neurri guztiak abian jartzea, bai esparru publikoan, nola pribatuan.

Pertsonen mugei aniztasuna da zailtasun nagusietako bat herritar eta gizarte-eremu guztientzako konponbide irigarriak proposatzeko. Nolanahi ere, kostu-faktoreak ez luke aitzakia izan behar konponbiderik onenak bilatzen ez saiatzeko. Askotan, eragindako pertsonetako arrazionaltasun, enpatia eta sentsibiltatea aplikatuz aurki daitezke irtenbide horiek. Are gehiago, bizitzeko ari garen digitalizazio-prozesuan IKTen erabilera intentsiboarekin eta adimen artifizialarekin gertatzen ari diren aurrerapen disruptiboek aukera ematen dute orain arte pentsaezinak ziren aplikazioak inplementatzeko irigarritasun unibertsalaren bidean. Teknologien diseinua eta erabileraren konbinazio egokia eginez gero, irtenbide arinak, errazak eta oso eraginkorrak aurki daitezke irigarritasun-arazo zehatz asko konpontzeko.

Hertsiki “fisikoa” denaren problematikari izkin egin gabe, apustu sendoa egin behar dugu IKTak eta adimen artifiziala intentsiboki erabiltzeko; izan ere, teknologien heldutasunak aukera ematen ditu, jarduera-eremu berriak irekitzeko. Gure gizarteko pertsona askoren oinarritzko eskubideek ezin dute itxaron.

Helburuak

Eragile publiko eta pribatuei helaraztea irigarritasun unibertsala politika publikoen eta entitateen kudeaketa-planen zentraltasunera eramateko beharra.

Digitalizazioak eta adimen artifizialak eskaintzen dizkigun aukera eta soluzio errealei buruz hausnartzea, irigarritasunaren arloko proiektu berritzaileak abian jartzeko.

Irigarritasun-proiektu berritzaileen esperientziak eta balizko erabilera-kasuak ezagutzea hainbat sektore eta sektoretan, hala nola turismoan, kultura-ondarean, *silver* ekonomian, hizkuntza-politikan edo mugikortasunean.

Ikastaroaren laguntzaile espezifikoak



Zuzendaritza



Josu Aztiria Aztiria

EH Bildu

Humanitateak-enpresa lizentziatuta. Bi master ditu kudeaketan: Antolamendu eta kudeaketa aurreratuan; eta Ekonomia Sozial eta Solidarioko erakundeen kudeaketa. Elhuyar Fundazioan Adimen Artifiziala unitateko zuzendaria da, eta adimen artifiziala eta hizkuntza-teknologiekin lotutako I+G proiektu nagusien koordinatzailea. 4 urte eman ditut Hizkuntza eta Teknologia unitateko zuzendari bezala Elhuyarren, 7 urte Elhuyar Fundazioko Hizkuntza Zerbitzuak saileko arduraduna izan da eta 3 urtez Donostiako Ilazki Euskaltegiko zuzendaria Elhuyarreko zuzendaritza-talde kidea da eta Euskal Herriko Hizkuntzen Industria biltzen duen Languneko zuzendatzitzako kidea ere bada.

Irakasleak



José Antonio Amundarian Iturrioz

Gipuzkoako Foru Aldundia

Filosofia eta Letretan Lizentziatua. Euskal Filologia (1984-1989 Deustuko Unibertsitatea) Gipuzkoako Foru Aldundian Normalizazio Programetako atalburua da (1999-2019) eta herri-administraziarekin lotutako normalizazio- eta lankidetzaproiektu askoren eragilea. Eralan, Udalekin, Udaltop eta Badalab proiektuaren parte hartzen du.



Xabier Arregi Iparragirre

Usurbilgo alkate ohia eta IXA-UPV/EHU ikerketa-taldearen koordinatzailea

Xabier Arregi Iparragirre Informatikan doktorea da 1995az gero Euskal Herriko Unibertsitatean. Gaur egun, unibertsitate horretako Lengoiak eta Sistema Informatikoak saileko irakasle agregatua da. Informatikako graduan eta HAP-LAP masterrean jardun ohi da irakasle. EHUKo IXA ikerkuntza-taldeko (<http://ixa.si.ehu.eus/>) eta HiTZ: Hizkuntza Teknologiako Euskal Zentroko (<http://hitz.eus/>) kide da. Ixa taldearen koordinazio-lanak ere egiten ditu. Hizkuntzaren Prozesamendura bideratu du ikerkuntza-lana, eta batez ere honako alorretan aritu izan da: Semantika Lexikala, Lexikografia Konputazionala, Korreferentzien Ebazpena, eta prozesamendu semantikoaren aplikazioak Informazioaren Berreskurapenaren eta Galderak Erantzuteko Sistemen arloan. Lan horiek Euskararen Prozesamendura bideratu dira nagusiki. Errebisioa gainditu duten ehun artikuluginguru ditu argitaratuak nazioarteko aldizkarietan eta kongresuetan. Hainbat ikerketa-proiektutan hartu du parte, nola herrialde edo nazio mailakoetan hala



Gotzon Arzelus

Batura Mobile

Deustuko Unibertsitatean lizentziatua Turismo jarduera eta Enpresen Kudeaketan, bere ibilbide profesionala marketinaren eta negozio-garapenaren esparruan garatu du. Bereziki barne-ekintzailetzako ekimenak sortzea egokitu zaio, lan egin duen enpresetan. Hala, Jon Villamilekin batera, BATURA sortu zuen 2006an, estatu mailan mugikorretarako aplikazioen garapenak egiteko lehenengotariko enpresa. Gaur egun, Baturako negozio-garapeneko arduraduna da, eta enpresaren berrikuntza eta lehiakortasun ekimenetan parte hartzen du. Hauetako ekimenetako bat, mugikorrentzako app irisgarriak egitean datza eta horretarako barne prozesu propio bat sortu dute Baturan.



Iker Goiria

Diputación Foral de Gipuzkoa

Gipuzkoako Foru Aldundian Turismo zuzendaria nagusia da. Zuzenbidean lizentziaduna EHU/UPVn, masterra enpresen aholkularitza juridikoan IE Business School-en eta Executive MBAn, Deustuko Unibertsitatean. Zuzendaritza-postuetan ibilbide profesio, Gipuzkoako Foru Aldundiko Turismoko zuzendari nagusi gisa lan egiten gaur egun.



Gorka Labaka Intxauspe

Univesidad del País Vasco (UPV/EHU)

Irakasle Atxikia Erakundea: Hitz Zentroa, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU) Argazkia atxikita Curriculumaren laburpena (gehienez 1250 karaktere) Gorka Labaka UPV/EHUko Bilboko Ingeniaritza Eskolako Lengoaia eta Sistema Informatikoen saileko irakasle atxikia eta IXA ikerketa-taldeko kidea da. 2001ean sartu zen IXA taldean, artean Informatika Ingeniaritza gradua ikasten ari zela, eta 2010ean lortu zuen Informatikako doktoretza UPV/EHUn. Bere ikerketa-interes nagusiak lengoaia naturalaren prozesamendua eta itzulpen automatikoa dira. Tesian zehar euskara-gaztelania itzulpen estatistikorako sistema bat garatu zuen. Ordutik, zenbait ikerketa-proiektutan parte hartzea dela eta (MODELA, MODENA, TANDO...), hizkuntza pare horretarako itzulpen automatiko neuronalean lanean jarraitu du. Gaur egun, Europako SignON proiektuan parte hartu ondoren, Espainiako zeinu hizkuntzatik (LSE - Lengua de Signos Española) gaztelaniara itzulpen automatikoa lantzen hasia da.



Asier Landa

Baskforall-eko eta Accesibilidad For All enpresen sortzailea

Fundador de Baskforall, agencia de turismo inclusivo y Co-Fundador de Accessible for all, plataforma de Consultoría y formación en Accesibilidad Universal.



Igor Leturia Azkarate

Elhuyar Fundazioa

Errenterian bizi den arrasatearra da, informatikako eta elektronikako ingeniaritza ikasketak ditu (Mondragon Unibertsitatea eta Université Paul Sabatier, Toulouse) eta doktorea da hizkuntza-teknologietan (Euskal Herriko Unibertsitatea). Elhuyar Fundazioan egiten du lan hizkuntza-teknologien I+G unitatean, non aurretik ikertzaile, proiektu arduradun eta unitateko arduradun izan den. Egun, bertako hizketa-teknologien saileko arduraduna da. Informatika, ofizioaz gain, afizio ere badu, komikiekin batera, eta bi gai horiei buruz idazten du bere blogean eta zenbait mediotan; informatikari dagokionez, software librea, deszentralizazioa eta burujabetza teknologikoa gisako gaiak landu ohi ditu.



Miren Muñagorri Mugica

Arkitektoa eta Accesibilidad For All-en sortzailea

Pertsona guztientzako inguruneak diseinatzeko eta gauzatzen 15 urte baino gehiagoko esperientzia duen arkitektoa. 2014az geroztik, ERROTUtik hainbat beharrian dituzten pertsonen kolektiboentzako ingurune irisgarriak sortu nahian nabil.



Txema Otero

Irizar e-mobility



Santi Pisonero

pr4 tecnología social

Consultor social experto en transformación cultural y digital en "pr4 Tecnología Social" y miembro de "APTES Asociación para la Promoción de la Tecnología Social". En la actualidad codesarrolla la Estrategia y el Plan Vasco de Accesibilidad Universal, impulsa BEGIZTEK Foro de Tecnología Social y proyectos de participación ciudadana digital. Además de "pr4 tecnología social SL", ha cofundado la Asociación "3DLAN" para la impresión 3D de productos de apoyo y "Editorial Verbigracia". Cuenta con varias publicaciones, decenas de artículos, proyectos reconocidos como buenas prácticas y escribe sobre tecnología social en el blog de pr4.es.



Idoia Sanz Murua

Adinberri Fundazioa

Publizitatean eta Harreman Publikoetan lizentziatua EHUn, Marketin Digitaleko graduondokoa eta Merkataritza Elektronikoko Masterra. Egun, Adinberri fundazioan lan egiten dut 2019tik, Silver Economy eta Trebakuntza-arduradun gisa. 16 urtez aritu nintzen Gureak Marketing enpresan, proiektu-zuzendari, negozio-garapen eta negozio-unitate bateko arduradun moduan. Euskaldunon Egunkarian Zuzendari komertziala izan nintzen eta kapazitazio arloari dagokionez, 4 urtez Cebanc-eko Prestakuntzako kudeatzaile bezala lan egin nuen.

Matrikula prezioak

MATRIKULA	2021-02-18 ARTE
OROKORRA	0 EUR

Kokalekua

Online zuzenean

Online zuzenean